

## **LABetik Tubacexeko mobilizazioetan parte hartu zutenen aurkako jazarpena salatu eta auziperatutako 3 gazteen absoluzioa eskatzen dugu**

Beste behin ere, Tubacexeko greban sortutako langileen elkartasuna zigortzen eta kriminalizatzen saiatzen ari dira. Ez da elkartasun hori zigortzeko lehen saiakera, ezta bigarrena ere; izan ere, bai grebak iraun bitartean, bai ondoren, isunak, mehatxuak, akusazioak eta neurrigabeko jarduerak ugariak izan dira, eta Tubacexeko langileek zein elkartasuna adierazi nahi izan dieten guztiek pairatu behar izan dituzte.

Oraingoan, fiskaltza da jarduten duena, eta Aiaraldeko hiru gazte solidariori 4 urtetik gorako espetxe zigorrak eskatzen dizkiena, martxoaren 25ean Amurrioko Tubacexeko piketean gertatutakoagatik. Desordena publikoak eta agintaritzaren aurkako atentatua leporatzen dizkie, eta gaineratu du modu koordinatuan jardun zutela han zeuden ehunka pertsonen laguntzarekin.

Gogoan izan behar da, bere garaian salatu genuen bezala, martxoaren 25 hartan Ertzaintza izan zela jokaera erabat neurrigabea izan zuena, bertan zeudenak hainbat aldiz kolpatuz eta haien aurka kargatuz, baita buruaren parean foama jaurtiz ere.

Hiru gazte horiekiko akusazio eta salaketak ez datoz bat errealitatearekin, eta ez dira gertakari zehatz batzuen ondorio; aitzitik, langileen borrokaren eta elkartasunaren aurkako jazarpen-estrategiaren barruan kokatzen dira.

Aurreko aldietan ikusi dugun moduan, eta salatu izan den bezala, botere eta estamentu desberdinetatik egindako jarduera horiek guztiak langile-borroka eta klase-elkartasun oro kriminalizatzeko strategiaren barruan daude, Tubacexen greban eta borrokan ikusi ditugu, Euskal Herrian azkenaldian bizi izan diren beste gatazka batzuetan bezala.

Horregatik guztiagatik, 3 gazte horien aurkako akusazioak eta inputazioak bertan behera uzteko eskatzen dugu, hala nola, langileenak edo Tubacex-eko pikete edo manifestazioetan parte hartu izan zuen edozein pertsona solidariorenak. Era berean, hiru pertsona horien absoluzioa eskatzen dugu, baita Tubacexeko greba eta langatazkaren harira salatuak eta auzipetuak izandako guztien absoluzioa ere.

Laudio, 2022ko abuztuaren 3a



## **Desde LAB denunciamos la persecución hacia los participantes en las movilizaciones de Tubacex y pedimos la absolución de los 3 jóvenes encausados**

Una vez más se intenta castigar y criminalizar la solidaridad obrera que surgió durante la huelga de Tubacex. No es la primera, ni la segunda vez que se intenta castigar esta solidaridad, ya que tanto durante la huelga como después han sido múltiples las multas, amenazas, acusaciones y diversas actuaciones desproporcionadas que han tenido que sufrir tanto los trabajadores y trabajadoras de Tubacex como todo aquel que quiso solidarizarse con ellos.

Esta vez es la fiscalía la que actuó y pide penas de cárcel de más de 4 años a tres jóvenes solidarios de Aiaraldea, por los hechos sucedidos el 25 de marzo en el piquete de Tubacex en Amurrio. Les acusa de desórdenes públicos y atentado contra la autoridad, añadiendo además que actuaron coordinadamente ayudados por los cientos de personas que estaban allí aquel día.

Hay que recordar, como denunciábamos en su día, que aquel 25 de marzo la Ertzaintza fue la que tuvo una actuación totalmente desproporcionada golpeando y cargando varias veces, incluso disparando foam a la altura de cabeza.

Las denuncias y las acusaciones hacia estos tres jóvenes no se ajustan a la realidad y no obedecen a unos hechos concretos, sino que están enmarcados dentro de una estrategia de persecución a la lucha obrera y la solidaridad.

Como hemos visto en anteriores ocasiones, y como ya se ha venido denunciado, todas estas actuaciones desde diferentes poderes y estamentos están enmarcados dentro de una estrategia de criminalización de toda lucha obrera y solidaridad de clase, los hemos visto en la huelga y la lucha de Tubacex como en otros conflictos que se han vivido en los últimos tiempos en Euskal Herria.

Por todo esto, pedimos y exigimos que se cese en las acusaciones e imputaciones hacia estos 3 jóvenes, como hacia los trabajadores/as o cualquier persona solidaria que acudió a los piquetes o manifestaciones de Tubacex. También pedimos la absolución de estas 3 personas como la de todos los denunciados y encausados derivados de la huelga y conflicto laboral de Tubacex.

Laudio, 3 de agosto de 2022